

[Leo Perutz idazle austriarraren eleberri honetan denetarik aurkituko duzu: amodioa, intriga, gogoeta, kritika... Irakurtzen hasiz gero, ez duzu bakerik izango, eleberria amaitu arte bederen.]

Bederatzietatik bederatzietara

Leo Perutz

Itzultzailea: Anton Garikano

2003

Alberdania-Elkar

Eleberriaren atzeko azalean ematen zaigu laburbildurik eleberriaren argumentua: protagonista –Stanislaus Demba ikaslea-, goiz batean behartua dago ilunabarra baino lehenago diru kopuru bat biltzera, berari muzin egin dion neskalaguna berreskuratzeko eta biek elkarrekin Veneziara egingo luketen bidaia batekin tentatzeko. Hala, delitu txiki bat egingo du, eta hortik aurrera eleberri poliziakoaren antza handia hartzen du Perutzen obrak: etengabe ihesi eta ezkutuan ibili beharko du Demba ikasleak. Eleberriaren atal bakoitzean, protagonistaren bizitzako pasarte bat agertzen zaigu.

Protagonista fisikoki nolakoa den ez dugu jakingo 133. orrialderaino, hantxe zehaztuko baitigu, poliziaren txosten bat aitzakia hartuta, nolakoa den pertsonaia: "gizon gaztea, hogeita bosten bat urtekoa, itxuraz etxe onekoa, garaia, indartsua, bibote gorrixka..." Psikologikoki nolakoa den, berriz, apurka-apurka joango gara deskubritzen narratzaileak hirugarren pertsonan eta elkarriketa nahiz bakarriketetan pertsonaiak berak emandako datuen arabera.

Esan dugun bezala, eleberrian denetarik aurkituko dugu: umorea, ironia fina, kaustikoa izatera ere iristen dena, egoera absurduak edo, hobeto esanda, egoerak azken muturreraino eramanez. Horren guztiaren atean gizaki baten borroka dago. Maitea berreskuratzeko zernahi egiteko prest dagoena, nahiz eta berreskuratzea lortzen duenean jadanik "erabat desinteresatua" dagoela esango digun. Pentsatzen jarrita, maitea berreskuratu nahi duen gizona baino, bere askatasunari uko egin nahi ez dion gizon ausart baten borroka ikusten dut nik eleberri honetan, kosta ahala kosta eta azken

ondorioetaraino borrokatzen den gizonarena. Hala irakurriko diogu irudizko hizkera erabiliz egindako esaldi ezin esanguratsuago: "Beharrak apurtu ditu kateak". Bada, ordea, horri guztiorri buruz zer eztabaidatua eta interesgarria litzateke, esaterako, protagonistaren lagun Steffi, berarekin maitemindua dagoena, eta haren papera aztertzea.

Hasieran esan bezala, ez dugu bakerik izango, behin eleberria irakurtzeari ekiten diogunetik, harik eta eleberria amaitu eta protagonistarekin batera atsedean hartzen dugun arte. Eta eleberraren erritmo biziak ez ezik, A.Garikanoren itzulpenak ere badu horretan zerikusia. Itzulpen onak itzulpen direla nabaritzen ez direnak direla esan ohi dugu. Eta hala da, eta kasu honetan ere hala gertatzen da. Harantzago doa, ordea, itzulpen hau. Irentsi egiten diren horietakoa izateaz gain, oso hurbilekoa egiten da idazteko tankera hau edo, bestela esanda, oso urrun dago itzulpen bortxatu edo ortopediko bat izatetik. Horra, labur beharrez testuingururik gabe, adibide pare bat esandakoaren adierazgarri:

"-Nik bai tankera txarra hartu: iritsi zenean, hirurogeita lau kilo pisatzen zuen ardigaztaren kaxak."

"A, ba nire atean jota ez dute asmatu. Berehalakoan ametituko dut! Tuntuna behar nuke!"

Hiztegia erabili gabe irakurtzeko modukoa, bestalde, itzulpen-lan hau. Alde horretatik, ezer nabarmentzekotan burutu (moldatu) eta galarazi (molestatu) aditzen esanahi ez ohiko bezain interesgarriak nabarmenduko genituzke. Eta amaitzeko, esango dugu, ñabardurarik txipienak ere kontuan izan dituela itzultzaileak itzultzerakoan. Hona nola aukeratzen digun, esate baterako, *inportante* adjektiboa *garrantzitsuren* ordez:

"Dendaria ez zen, horratik, bere gai inportantetik saihestu".

Azken aldian irakurri dudana eleberririk interesgarrienetakoa, zalantzarik gabe, nola istorioak berak sorrararazi didan tentsioarengatik, hala maila horretako idazlan bat euskara onean irakurtzeak ematen duen plazerarengatik.

Mikel Garmendia

